

## JEAN HARITSCHELHARREN MINTZALDIA MAULEN

Mauleko Jaun mera,  
Agintari Jaun-Andereak  
Euskaltzain kideak  
Jaunak eta Andereak,  
Agur.

Nehor ez da harrituko eta nehor ez da gaitzituko ere euskaraz hasten balin badut nire mintzaldia.

Eskerrak zuri lehenik, Jaun mera, egin diguzun «hunki jin» ederrarengatik. Eskerrak ere Mauleri eta denbora berean ere eskerrak Donapaleuri. Zertako hemen garen? Oihenarten goraiatzeko. Duela bizpahiru urte, Euskaltzaindiak hartu zuen erabaki bat, eta hauxe da: Euskal Herriak dituen idazleetan, bereziki jende haundienak, behar ditugula goraiatu, horiek baitira gure ondarea, horiek baitira gure altxorra, horiek konda baitira gure historian. Eta besteek egiten dutena guk ere egin behar dugu, erran nahi baita atzerat edo gibelerat itzuliz, ikusi behar dugula nor izan diren gure arbasoak, zer egin duten eta haiek behar ditugula goraiatu. Hortakotz, duela bi urte, Larramendi urtea zela erabaki zuen Euskaltzaindiak. Iaz, Louis Lucien Bonaparte printzeari eskaini diogu urtea. Hirugarren bat bazen aurtengo eta xuberotarra zen, hori zen Allande Oihenart.

Ez zen nor nahi Allande Oihenart. Jadanik behar den bezala erran digu Mauleko auzapezak nor zen Oihenart: legegizona, gizon publikoa, xuberotarren zuzenen zaintzalea, denbora berean historilaria, olerkaria ere eta atsotitz edo erran zahar biltzailea.

Gizon publiko gisa, zaindu ditu xiberotarren zuzenak. Nafarroa Beherean bizi zelarrik, gauza berbera egin du. Hemen, Maulen, hasten balin badugu eta gero Donapaleun segitzen balin badugu gure biltzar nagusi hau, XII. biltzar

nagusia, lehen aldikotz Iparraldean egiten duguna, da, alde batetik sortu zelakotz Maulen eta bertze aldetik, ezkonduz gero, bizi izan zelakotz Donapaleun.

Historilaria: idatzi du *Notitia Utriusque Vasconiae* delako liburua, latinez, latina baitzen orduan hizkuntza noblea eta denek erabiltzen zutena, bai Frantzian eta bai besteetan. Oroit naiz ikusirik tesi bat, XIX.mendekoa, Frantzian irakurtua eta latinez oraindik idatzia. Erran nahi baita latina izan dela denbora luzez gure hizkuntza noblea. Beraz latinez idatzi du. Espainolerat itzulia izan da, frantseserat ez oraindik. Beharko genuke hori ere ardietsi egun batez denek jakin dezaten zer historigile ederra izan den Oihenart, hartzen zuelarik Euskal Herri guzia, bai Akitaniako Vasconia (Vasconia hitza erabiltzen baitu) eta bai Iberiako Vasconia. Orduan, harremanetan sartua zen frantses eta espainol historilari haundienekin. Artxibategi gehienak ikertu zituen eta badakigu ukatu ziotela sartzea Nafarroako artxibategian ez zuelakotz onartzen Nafarroa garaia Espainiaren menpean izaitea.

Olerkaria: hor ditugu lekuko 1656.an agertarazi dituen olerkiak eta atsotitzak. Pariseko argitaletxe batean, olerkien zatiak daraman titulua delarik: *O-en gaztaroa neurthitzetan*. Badakigu ere zer ziren haren ideiak euskal prosodiari buruz. Barbaste familiak emanikako eskuskribu baten bitartez, Aita Lafittek publikatu zuen 1967 an, *Gure Herria* aldizkarian, «L'art poétique basque indiquée dans une lettre écrite à un curé du pays de Labourt au mois de mai 1665.» Idazki horretan ikus daiteke bereizten zituela bertsogintza herrikoia eta bertsogintza jakintsua, zeuzkan ideiak aplikatu dituelarik bere olerkietan. Bide nabar euskal literaturaren historia egiten du jakinaraziz ezagutzen ez genituen olerkariak, hala nola Jean d'Etchegaray *Artzain gorria* deritzan pastoral baten idazlea omen, eta Arnaud de Logras Utziatiko priorea, Amikuze eta Oztibarreko bikario nagusia.

Atsotitz biltzailea: 706 atsotitz bildu ditu eta publikatu, jadanik aipatu dudan liburuan. Paradaz baliatzen naiz erraiteko liburu horren edizio berri bat agertu duela egun hauetan Baigorriko Izpegi argitaletxeak, Jean-Baptiste Orpustan irakasleak paratua, hiru hizkuntzatan egina, frantses eta espainol itzulpenekin. Eskerrik beroenak merezi dituzte Izpegi argitaletxeak eta Jean-Baptiste Orpustan-ek.

Atsotitz biltzailea beraz. Ez da lehenbiziko biltzailea; bertze batzuk izan dira lehenago, baina 706 atsotitz bilduz lan ederra egin du, altxor paregabea baita guretzat.

Nahiz orain bertan eginen dugun kongresuaren irekitze ofiziala, aipatu nahi dut barda ikusi dugun ikusgarria. Duela zazpi urte, muskildiarrek eman zuten Allande Oihenart pasterala Agergaray-ek idatzia. Barda, bertze ikusgarri bat eskaini digute muskildiarrek, zoragarria noski, Oihenart goraitatuz. Arrakasta haundia ukan du eta esku zarta nasaiek salatu dute behatzaleen atsegina. Eskerrak beraz muskildiarrei eta bereziki Berçaitz anaiei. Badakit Donostiako

antzoki nagusian emanen dutela. Erakusten digu Muskildik, nahiz Zuberoako herrixka bat izan, badirela Zuberoan ahal haundiak. Zorionak jokolari guziei.

Lau egunez ariko gara lanean Oihenart-en obra eta haren garaia aztertuz: hizkuntzalaria, gramatikalaria, olerkaria eta atsotitz biltzailea, astearte eta asteazkenean Maulen; historialaria bereziki ortzegun eta ortziralean Donapaleun. Karia horretara biltzen ditu Euskaltzaindiak Euskal Herrian, Frantzian eta Espainian dauden unibertsitateko irakasle batzuk, Paris, Nanterre, Tolosa, Bordele, Paue, Baionatik etorriak, halaber Euskal Herriko Unibertsitatetik, Deustutik eta UNED Madrilekotik. Agertzen da beraz Euskaltzaindia irakasle-ikerleen biltzaile gisa. Helburu ederra, uzta ederra eman dezakeena, agertuko direlarik biltzar nagusi honen aktak.

\* \* \*

Monsieur le Maire, je voudrais vous remercier de l'accueil que vous faites à l'Académie. Je crois que tout le monde ici est conscient de la qualité de cet accueil. Et dois-je vous remercier personnellement de l'honneur que vous m'avez fait de m'attribuer le médaille de la ville de Mauléon. Croyez bien que cela m'est allé droit au coeur. Mais je profite de l'occasion aussi, parce que je vois Monsieur le maire de Gotein, votre frère, qui est aussi présent, pour vous dire à tous les deux le sentiment de sympathie que nous éprouvons pour la perte de votre père qui a eu lieu ces jours-ci et dont l'enterrement a eu lieu hier. Croyez bien que c'est de tout coeur que nous vous adressons nos condoléances.

Un certain nombre de personnes que nous avons invitées nous ont fait parvenir des messages d'excuses: M. Andrieu, préfet des Pyrénées-Atlantiques, M. Sapède, sous-préfet de Bayonne et M. le Sous-Préfet d'Oloron sont soumis à l'obligation de réserve, ainsi que M. Jutant, inspecteur d'Académie car, en effet, dimanche prochain ont lieu les élections sénatoriales et deux des candidats, M. Duboscq, syndic de Soule, ainsi que M. Dascon, président du Syndicat Intercommunal, m'ont fait savoir qu'ils ne pouvaient être présents; M. Valade, président du conseil régional, avait délégué M. Récapet, lui-même retenu par une réunion importante; autres excusés: M. Labarrère, député-maire de Pau, MM. Coumet, Destrade et Grenet, conseillers généraux, M. Poulou, Maire d'Urrugne, président du Biltzar des maires du Labourd, M. François Maitia, maire d'Ispoure, M. Antxon Laffont, directeur de la Chambre de Commerce et d'Industrie de Bayonne et du Pays Basque. Je m'apprêtais à excuser M. Lassalle, maire de Saint-Palais dont on m'avait dit qu'il était à un enterrement à Pau mais il vient de se joindre à nous et, par conséquent, je salue sa présence.

Je voudrais quand même ici excuser quelqu'un d'autre: M. François Bayrou, Président du Conseil Général des Pyrénées-Atlantiques, dans une lettre qu'il m'écrivait il y a quatre ou cinq jours, m'annonçait sa présence et me disait qu'il avait un certain nombre de choses à dire. Je l'ai eu tout à l'heure au téléphone. Il me téléphonait de Paris. Nous sommes au lendemain

d'un scrutin qui, je crois, a son importance, et m'a-t-il dit, je suis à Paris et nous sommes en réunion et il m'est impossible de venir vous rejoindre. Alors, je voudrais que vous disiez à l'assemblée qui sera ce soir à la mairie de Mauléon à quel point je suis navré de ne pas être là car j'aurais voulu parler devant tout le monde, mais je voudrais que vous disiez surtout à cette assemblée que de la même manière que j'ai reçu le bureau de l'Académie, à Bayonne, de la même manière je tiens à ce que l'Académie soit reçue au Parlement de Navarre, à Pau et j'assure que le Conseil Général des Pyrénées-Atlantiques prendra en compte l'Académie de la langue basque. Le message est donné. Moi je réponds «Hitza hitz» et je souhaite qu'effectivement les paroles que M. Bayrou nous a dites à Bayonne et qu'il m'a répétées tout à l'heure au téléphone soient prises en compte. Je sais qu'il doit venir aussi le 3 octobre à Irisarry et je pense que, effectivement là, il prononcera le discours sur la culture basque qu'il a l'intention de prononcer.

Je voudrais saluer la présence de certaines personnalités: Mme Mari-Karmen Garmendia, qui est la secrétaire générale de la politique linguistique au gouvernement basque de Vitoria. Mme Mari-Karmen Garmendia est ici mais je voudrais en même temps aussi faire part d'un télégramme qui provient du gouvernement basque. Je vous le lirai tel qu'il est: «Hil honen 21.ean (parce que, entre nous soit dit, c'est le basque qui est notre langage commun) Mauleko udaletxean Oihenarten 4. mendeurrena ospatzeko egingo den Euskaltzaindiaren XII. biltzar hasierako ekitaldi idekirat joateko konbidapena eskertzen dizut Lehendakariaren izenean. Lehengo hartutako konpromesua dituenek, Lehendakaria ezin izango dela joan esan behar dizugu. Agur bero bat». C'est signé Begoña Salinas-Solano, Gizarte eta Erakunde harremanetarako idazkari nagusia. Donc, cela vient directement de la part de M. Ardanza. Je voudrais saluer aussi la présence de M. Tomás Uribeetxebarria, qui est le responsable de la culture à la diputación forale de Biscaye, ainsi que celle de M. Jose Luis Mendoza qui vient ici au nom de M. Jose Maria Rodriguez Ochoa, le directeur de la politique linguistique en Navarre, avec les excuses de M. Pedro Ramos, le député responsable de la culture en Alava et de Mme Maria Jesus Aranburu, député de la culture en Guipuzcoa; l'ensemble de toutes les provinces basques est donc ici réuni.

Sans vouloir être trop long, je veux cependant profiter de l'occasion pour dire brièvement ce qu'est l'Académie de la langue basque. Depuis septembre 1918, date de sa naissance au premier Congrès d'Etudes Basques d'Oñate, jusqu'au 7 octobre 1919, au Palais de la Diputación de Guipuzcoa, à Saint-Sébastien où se réunirent pour la première fois les académiciens choisis, il convient de souligner que sur les douze académiciens, trois représentaient les dialectes d'Iparralde, ce qui signifie que dès l'origine, Euskaltzaindia prenait en compte l'ensemble des provinces basques, qu'elle se considérait comme une institution transfrontalière, qu'elle avait à veiller sur une langue et une culture prises dans leur unité. Depuis bientôt trois quarts de siècle le même

but est poursuivi avec plus de vigueur que jamais. En effet, depuis 25 ans, Euskaltzaindia s'est lancée dans la grande aventure du basque standard ou euskara batua, langue essentiellement littéraire dont les progrès ne cessent de s'affirmer de jour en jour, ainsi qu'en témoignent la production des écrivains dont certains atteignent une renommée internationale comme Bernardo Atxaga, grand prix des lettres en Espagne dont le roman *Obabakoak* est traduit en une dizaine de langues parmi lesquelles le français, l'anglais, l'allemand, l'espagnol, l'italien...

Au moment, où, à partir du 1er janvier 1993, avec l'Acte unique, les frontières sont appelées à disparaître, Euskaltzaindia se vante d'avoir annihilé la frontière entre le Nord et le Sud d'Euskal Herria depuis bien longtemps et désire continuer à oeuvrer pour que les barrières psychologiques, spirituelles et culturelles qui existent en chacun d'entre nous soient abattues définitivement par la prise de conscience de l'unité linguistique et culturelle.

Monsieur le Maire, je vous remercie à nouveau de votre accueil. Vous avez bien voulu dire qu'Euskaltzaindia honorait votre ville. Croyez bien que par la tenue de ce Congrès Oihenart, elle ne fait que remplir son devoir qui est, entre autres, de restituer aux Basques leur passé, leur histoire. Les jours à venir en porteront témoignage.

Mesdames et Messieurs, je vous remercie.